II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Jendaurrean jartzea ondasun higiezinen gaineko zergaren 2025eko ekitaldiko erroldak

Arabako Foru Aldundiak Lantarongo hiri, landa eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinen gaineko zergaren 2025eko ekitaldiko erroldak egin ondoren, jendaurrean jartzen dira, Ondasun higiezinen gaineko zergaren Foru Arauak 21.2. artikuluan xedatutakoa betez; udal bulegoetan egongo dira erakusgai, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, aztertu ahal izateko eta, hala badagokio, egoki jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Iragarki honek, orobat, betetzen du erroldetan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2025eko apirilaren 15a

Alkatea
JOSÉ LUIS SALVIDEA MARTINEZ

Firmado: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100006I, OU=SELLO ELECTRONICO ORGANISMO IDENTIFICATIVO=P0100006I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES